



Ipuinak bertsotan

Gauez ohera sartu, mantapera gozo-gozo,
eta norbaitek alboan ipuinak kontatzea.

-Kontatu beste bat... eta -beste bat...

ahotsarekin lokartu arte.

Plazer handiagorik!

Sar gaitezen ipuinen mundura.

Zertan trebatuko gara...

Sei bertsorekin narrazio bat osatzen ariko gara.

Azken puntua eta oinak hartuta, atzekoz aurrera
teknikarekin jardungo dugu bertsotan.

Plazara!

Txotxongiloekin, pantailan irudiz lagunduta edo
mozorroturik antzeztuz...

Gure ipuinak oholtzaratzeko prest?





T x a n o g o r r i t x o

Leire Ostolaza Arrillaga

Ipuinik ezagunena, kantuz kontatuta.

Doinua: Nagusi jauna hauxe da lana
Neurri berezia

NARRATZAILEA

Ba omen zen behin neska txiki **bat**,
zeinen alaia zen gogoan **daukat**:
nahiz jolasten zekien **ederki**,
handiagoen lanak nahi **beti**.
Hau **zoriona**,
begitxoetatik **zeriona**,
entzunda amak esan **ziona**:

AMA

Aizu, alaba **Txanogorritxo**,
tori eztia ta hiru **opiltxo**,
gaixorik dago amona **xaharra**,
badauka bilobaren **beharra**,
zoaz, **mugitu!**
Loretxoak biltzen ez **gelditu**,
bestela otsoak jango **baitzaitu**.

TXANOGORRITXO

Ama banoa ta gero **arte**
AMA
azkar joan ta kontuz ibil **zaite**;
amona han izango duzu **zai**,
goseak ez da egongo **lasai**.
Tori bi **musu**,
opiltxoak hartu al **dituzu?**
Amona ondo zaindu **ezazu**.

TXANOGORRITXO

Tralatralarai, **tralatralarai**,
amonarengana nijoa **alai**,
hartu ditut nire **loretxoak**,
eta salto egin dit **otsoak**.
Susto **itzela...**
utzi nauzu harria **bezela**,
zergatik irten zara **horrela?**

OTSOA

Ume polita, hau da **zortea**,
biok baso honetan **egotea**;
nora zoaz otarra **horrekin?**
mesedez, joan nahi dut **zurekin**;
bi bide **daude**
eta, nirekin ados **bazaude**,
egin apustu motzaren **alde**.

OTSOA

Amonatxoa, jada heldu **naiz**,
zugana beti iristen naiz **garaiz**:
azkar zabaldu zazu **atea**,
nahi nuke askaria **jatea**,
AMONA
Sartu, **biloba**,
zu ikusteko zenbat **denbora**,
zatoz, polita, nire **ondora**.

OTSOA

Nire askari zu zara **eta**
zu jateko hartu nahi nuke **beta...**
amona zein goxoa **dagoen...**
mozorro nadin ahal den **ondoan..**

TXANOGORRITXO

Kaixo, **amona**,
aurrenengo iritsi naiz **hona**
ta dakarkizut askari **ona**.

TXANOGORRITXO

Ene, amona, **harritzekoa!**
Sudurra duzu otso **antzekoa**,
ta belarriak oso **handiak**,
amona batentzat **gehiegiak**,
eta **ahoa:**
bestetan baino **handiagoa...**
Zuk bai duzula gaitz **arraroa**.

OTSOA

Sudurra daukat zu **usaintzeko**
eta belarriak zuri **entzuteko**,
ahoa duzu hurrengo **kezka**,
mesedez, ez zaitez joan **iheska**,
jango zaitut **nik...**
Amona tripan daukat **jadanik**
eta goseak nago **oraindik**.

TXANOGORRITXO

Ama, lagundu! Ama, **lagundu!**
Otso gaizto honek amona **jan du!**
Norbait etor dadila, **mesedez**,
edozer emango nuke **ordez!**
EHIZTARIAK
Zu egon **lasai**,
bagara amona salbatzeko **gai**
eta otsoa hiltzeko ere **bai**.

NARRATZAILEA

Biak salbatu **ondorenean**
ito zuten erreka **barrenean**,
eta denak jarri ziren **pozik**,
guztiak gure otsoa **ezik**.
Hola izan **zan**,
eta sartu ziren **kalabazan**
ta irten Azpeitin, berdura **plazan**.



Sagutxo kaskarina

Oihane Perea Perez de Mendiola

Ipuin klasiko honen amaierak emango digu zer pentsatua eta zertaz hitz egina!
Zein da ipuinaren mezua?
Emango al diogu beste bukaera bat istorioari?

Doinua: Txuringaingo errota
Neurria: Zortziko txikia

NARRATZAILEA

- 1 Bazen behin sagutxo bat bakarrik **zegona** bikotea nahi zuen eder eta **ona** erratza pasatzean lurrean **txanpona** aurkitu zuen eta a ze **zoriona!**
- 2 Dendara joan zen gero lazoa **erostera** maitea topatzeko nolako **aukera** kartel bat jarri zuen ta **astebetera** animalia asko joan zen bere **etxera**.

Doinua: Gure eliz dorreko
Neurria: Kopla txikia

- 3 SAGUTXO KASKARINA
Kaixo txakur maitea zuk maite al **nauzu?**
Eta gaua heltzean zer egingo **duzu?**
- 4 TXAKURRA
Zaunka egingo dizut gaua **iristean** txakur bat behar duzu zure **aldamenean**.
- 5 SAGUTXO KASKARINA
Kaixo asto maitea zuk maite al **nauzu?**
Eta gaua heltzean zer egingo **duzu?**
- 6 ASTOA
Arrantza egingo dizut gaua **iristean** asto bat behar duzu zure **aldamenean**.

7 SAGUTXO KASKARINA

Kaixo kilker maitea
zuk maite al **nauzu?**
Eta gaua heltzean
zer egingo **duzu?**

8 KILKERRA

Nik abestuko dizut
gaua **iristean**
kilker bat behar duzu
zure **aldamenean.**

9 SAGUTXO KASKARINA

Kaixo katu maitea
zuk maite al **nauzu?**
Eta gaua heltzean
zer egingo **duzu?**

10 KATUA

Isilik egongo naiz
gaua **iristean**
katu bat behar duzu
zure **aldamenean.**

Doinua: Zelaia ikusi dut
Neurria: Zortziko txikia

NARRATZAILEA

11 Katua baino hoberik
ezin zen **espero**
ez zuen zaratarik
egingo **gauero!**
Ezkondu ziren biak
muxu eman **bero**
baina jan nahi zuela
ohartu zen **gero (bis).**

12 Sagutxoentzako da
mezu hau **izatez**
zuen burua maita
zazue **mesedez**
bikotea hautatu
buruz ta **bihotzez**
baina kontuz ibili...
katua inoiz **ez! (bis).**

Pertsonaia mitologikoak

Gure basoetan *Mari*, *Basajaun*, *Tartalo*, *Akerbeltz*, *Laminak* edo *Galtzagorriak* ikustea ez harritu!

Puntu erdiak osatuz, **8ko txiki** banarekin aurkeztuko dugu pertsonaia bakoitza. Ezagutzen al ditugu euren kondairak?

Doinua: Maritxu nora zoaz

Zortziko txikia

Mari

.....

mendian **kantari**

.....

dabil **hegalari**

.....

egon zaitez **adi**

.....

Anbotoko **Mari**.

Tartalo

.....

aurpegi **zatarra**

.....

badauka **indarra**

.....

handia, **baldarra**

.....

du begi **bakarra**.

Akerbeltz

.....
bizi da **mendian**

.....
ditu **bekokian**

.....
akelarre **erdian**

.....
muxu **ipurdian**.

Galtzagorriak

.....
ez dira **inurriak**

.....
dibertigarriak

.....
oso **bihurriak**

.....
ta galtza **gorriak**.

Laminak

.....
ahate **hankekin**

.....
orraziarekin

.....
haien **kantuekin**

.....
kontuz **beraiekin**.

Basajaun

.....
basoren **batean**

.....
dira **bat-batean**

.....
uztean **bakean**

.....
zuhaitzen **artean**.



Karta jokoa hartu eta, "Ipuinak bertsotan"
sailaren barruan, "Nor zen behin?" multzoa
hartuko dugu. **Oin bikotea** emango zaigu eta,
kopla bakarrean, ipuin horri buruzko ahalik eta
pista nabarmenenak ematen saiatuko gara.
Ea lagunek **asmatzen** duten zein ipuin den!



Karta jokoa hartu eta, "Ipuinak bertsotan" sailaren barruan, nahi dugun ipuina hartuko dugu. **Ipuina 6 bertsotan** kontatzeko, **azken puntua eta 3 oinak** emango zaizkigu, 8ko txikian.